

Matxismoak lekurik ez duela erakusteko kanpaina

Amasa-Villabonako Udalak Lurgatz eta Akain talde feministekin elkarlanean burutuko du; gida bat banatuko du etxez etxe eta itsasgarri bat establezimenduetan eta pankartak eta seinaleak jarriko ditu // 6

**Tolosaldeko
herritarren
%12 kutsatu da
pandemiaren
hasieratik** // 4

**Tolosaldea
IKT-ko
igerilariek
emaitza onak
lortu dituzte** // 7



ELDUAIN

BIDAIATZEKO MODU EZBERDINA

Elduaingo Allanegi baserria Workaway plataforman dago sartuta, eta lana egitearen truke ostatua jasotzen dute bertaratzen direnek; 50 boluntario inguru pasa dira orain arte, eta une honetan bi gazte frantziar daude // 5

PEDRAM YAZDANI



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Festak erdizka, bigarren urtez

Herriko festak bere horretan ospatu ordez, kultur egitarauak prestatu dituzte eskualdeko hainbat herritan; neurriak betez, ia ekimen guztiak aire zabalean eta eserita izango dira

Irati Salzar Artola

Bigarren uda sasoia da jarraian ohiko moduan festarik ospatu ezingo dena. Pandemiak hemen jarraitzen duenez, hainbat herritan festarik ez ospatzea erabaki dute festa batzordeek. Beste herri batzuetan, aldiz, kultur egitarauak osatu dituzte festak izan beharko luketen egunetan edota hilabete osoan zehar. Edo badira herriak kultur ekimenak herritarrentzat soilik antolatu dituztenak ere.

Egoerak ahalbidetzen duen neurrira antolatutako ospakizunak dira guztiak, gehienak aire librean egitekoak, eta ia guztiak eserita begira egotekoak. Hori ere festaren parte delako, eta festetan kulturak duen pisua nabarmenagoa izango da uda honetarako prestatu dituzten egitarauetan.

Gaueko festa egiteko aukerarik ez denez, egun argiz egingo dira ekimenak, baina izango da afalostean ere aukerarik. Besteak beste, hainbat herritan bertso saioak, dantza emanaldiak eta kontzertuak afaldu ondorenako utzi dituzte, gauerdia aurretik egiteko.

ABUztura begira

Santuen egutegiari begira, eta abuztua baino lehen, Santio eta San Inazio jaiak datoz. Nola Amasa-Villabonan, hala Altzon, kultur egitarauak prestatu dituzte, eta egun horietan zehar hainbat ikuskizun, ekimen eta emanaldi izango dituzte.

Kultur eskaintzak aldaketak izan ditzake, eta *Ataria.eus* webgunean jasoko dira guzti-guztiak. Egitarau berriak jaso ahala ere webguneako agendan txertatuko dira.



Mikra akrobazia ikuskizuna Larraulen eta Zizurkilen ikusteko aukera izango da abuztuan zehar. ANE GARMENDIA

UDAKO KULTUR ESKAINTZA

ADUNA

Abuztuak 13, ostirala.

22:30ean, herriko plazan, Antton Telleriaren *Nekatutak* bakarrikzeta.

Abuztuak 14, larunbata.

19:00etan, frontoian, Alurr Dantza Taldearen *Gattiu* dantza ikuskizuna. 22:30ean, futbol aretoan, bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Aitor Sarriegi, Oihana Iguaran eta Unai Agirre. Gai jartzaila: Imanol Artola *Felix*.

Abuztuak 15, igandea.

09:00etan, diana. 11:00etan, meza nagusia. 12:00etan, axeri-dantza. 22:30ean, futbol aretoan, Amak lukoaren musika emanaldia.

ALTZO

Uztailak 23, ostirala.

19:00etan, Distopia elektrotzaranga, Geizan.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tolosako Casa Julian jabetxean zerbitzaria behar dugu. Interesatuak bidali curriculum *lan eskaintza* erreferentziarekin: *casa-julian1951@gmail.com*.

Uztailak 30, ostirala.

Arratsaldean, Loatzoko trikitilariak eta txaranga, herrian zehar.

19:00etan, Ibil bedi musika taldearen kontzertua, eskolako estalpean.

Uztailak 31, larunbata.

Goiz eresia herriko txistulariekin. 12:30ean, Artea dantza taldea eta herriko musikariak, eskolako estalpean.

19:00etan, bertso jaialdia, eskolako estalpean: Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Joanes Illarregi, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio. Gai jartzaila: Manu Olano.

Abuztuak 1, igandea.

19:00etan, *Kale gorrian* kale antzerkia Barsanti taldearen eskutik, herriko plazan.

AMASA-VILLABONA

Uztailak 22, osteguna.

19:00etan, Gurea antzokian *Degenerate mucho* antzerkia.

Uztailak 23, ostirala.

19:00etan, Makulu Ken taldearen kontzertua, Errebote plazan.

Uztailak 24, larunbata.

22:00. Korrontzi eta Oinkariaren *Koplariak* emanaldia, Arroako plazan.

Uztailak 25, igandea.

13:00etan, Gorka Hermosa eta Gari-koitz Mendizabal txistularien *Folklore fusionatua* emanaldia, Txistulari plazan.

19:00. Bertsolariak Arroako plazan: Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Iker Zubeldia. gai jartzaila: Amaia Agirre.

Uztailak 26, igandea.

19:00etan, Txistulari plazan, The nowhere plan bikotearen kontzertua.

Uztailak 29, osteguna.

19:00etan, Dupla taldea, Errebote plazan.

Uztailak 30, ostirala.

19:00etan, Amalur plazan, zinema kalean: *Zikoinak*.

Uztailak 31, larunbata.

13:00. Eresargi Txiki abesbatzaren emanaldia Gurea antzokian.

IBARRA

Uztailak 30, ostirala.

22:30ean, Emeterio Arrese parkean, La Topadora taldearen kontzertua.

Abuztuak 21, larunbata.

19:00etan, Emeterio Arrese parkean, Alurr dantza taldearen *Gattiu* dantza ikuskizuna.

Abuztuak 23, astelehena.

20:00etan, Emeterio Arrese parkean, Puro Relajo taldearen kontzertua.

Abuztuak 24, asteartea.

22:00etan, Emeterio Arrese parkean, Bulego taldearen kontzertua.

LARRAUL

Uztailak 27, asteartea.

09:00etan, Mater-ontzi museo eko-aktibora bisita. Parte hartzeko izena eman beharko da, 634 289 327 zenbakian.

Uztailak 30, ostirala.

21:00etan, zinema aire librean.

Uztailak 31, larunbata.

11:00etan, ume jolasak.

19:30ean, Mugan taldearen kontzertua.

Abuztuak 1, igandea.

11:00etan, pilota partidak. 11:00etan, sagardo dastaketa komentatua. Aurrez eman beharko da izena 634 289 327 telefonon.

18:30ean, bertsolariak.

Abuztuak 2, astelehena.

10:00etan, mendi irteera. 19:00etan, *Mikra* akrobazia antzez-lana.

Abuztuak 3, asteartea, San Esteban eguna.

11:00etan, meza.

12:00etan, jolasak.

19:00etan, *Arineketan* dantza ikuskizuna.

Abuztuak 24, asteartea, San Bartolome eguna.

11:00etan, meza.

19:00etan, trikitilariak.

ZIZURKIL

Abuztuak 13, ostirala.

16:00etatik 19:00etara, puzgarriak Pedro Mari Otaño plazan.

19:00etan, *Frontona* antzez-lana, Intxaur frontoian.

Abuztuak 14, larunbata.

09:30ean, *Konkis Txiki*, 6 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat erronka eta proba dibertigarriak herrigunean zehar.

11:00etan, 6 urtetik beherakoentzat jolasak Pedro Mari Otaño plazan.

18:00etan, *Mikra* zirkua emanaldia Pedro Mari Otaño plazan.

22:30ean, Julen Alonso eta Oinkariaren eskutik *Sutan Dantzan* ikuskizuna Intxaur frontoian*.

Abuztuak 15, igandea.

11:00etan, haurren basoa ekimenaren eskutik, tailerrak eta jolasak.

12:00etan, herri kirol saioa: aizkoran, Jon Irazu-Txomin Amondarain / Unai Otaegi-Joseba Otaegi.

Harri jasotzen, Udane Ostolaza. 19:00etan, bertso jaialdia Intxaur frontoian. Bertsoan: Maialen Lujanbio, Unai Mendizabal, Amaia Agirre, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Amets Arzallus. Gai jartzen, Igotz Alkorta*.

*Oharra: edukiera mugengatik, gonbidapenak eskuratu beharko dira *Sutan Dantzan* ikuskizunerako eta bertso jaialdirako. Iriarte eta Plaza Etxeberrijatetxeetan egongo dira eskuragai.

Kultura Plazarako emanaldiak ere, abuztuan eta irailean

Besteak beste, Belako, La Furia, Izaro eta Ene Kantak taldeen emanaldiak ikusi ahal izango dira datozen bi hilabeteetan; abuztuaren 1ean hasiko da egitaraua

Erredakzioa

Ekaina eta uztaila Kultura Plaza jaialdiaren barruan zezen plazan egin diren kontzertu eta emanaldietara 2.237 pertsona hurbildu dira, eta Tolosako Udalak pozik azaldu da jaialdiak izan duen harrerarekin. Tolosako auzoetan egon diren ekimenek ere harrera ona izan dutela esan du. Kulturak ez du etenik, ordea, eta udalak abuzturako eta iraileko antolatutako emanaldien berri eman du. Haur zein helduei begirako ekitaldiak antolatu ditu eta emanaldi gehienak zezen plazan izango badira ere, San Esteban, Aldaba eta Berazubi auzoetan ere egongo dira ekitaldiak. «Kultura kalera ateratzea, kulturari eta euskal taldeei ikusgarritasuna ematea, eta herritarrei kulturaz gozatzeko aukera ematea dira jaialdiaren helburu nagusiak», esan du udalak.

Dena den, uztaila ez da bukatu oraindik eta asteburuan kultur ekitaldiak izango dira Tolosan. bihar Udak Musika Bandak kontzertua eskainiko du, 22:00etan zezen plazan, eta larunbatean Bang! Bang! Tolosa zinema saio berezia egongo da. *Por un puñado de dólares* filma eskainiko dute zezen plazan 22:00etatik aurrera eta sarrera doakoa izango da. Krispetak eta garagardoa doan banatuko dituzte ere eta, horrez gain, filmaren inguruko photocall-a egongo da. Filmaren aurretik aurkezpena, lehiaketak



Zetak taldeak kontzertua eskaini zuen zezen plazan, Kultura Plaza jaialdiaren barruan. TOLOSAKO UDALA

eta sari banaketa egongo dira. Igandean, hilak 25, Tolosako zezen plazan 22:00etan *Gernika*. Markak dokumentala ikusi ahal izango da soinu banda zuzenean jotzen duten bitartean.

Asteartean, hilak 27, *Beotibar 700 urte: gezurren egia* liburuarren inguruko hitzaldia eskainiko du Xabier Irujok. 19:00etatik aurrera ariko da udaletxeko batzar aretoan.

Zezen plazako sarrerak erosteko Kulturaplazara.eus webgutira jo behar da.

EGITARAUA

Abuztuak 1. Kikiklon: porrusalda erronomia, 19:00etan San Esteban auzoan.

Abuztuak 7. Kalakan, 20:00etan, zezen plazan.

Abuztuak 20. La Furia eta Dupla, 20:00etan, zezen plazan.

Abuztuak 28. Belako, 20:00etan, zezen plazan.

Abuztuak 29. Kantu Kolore 12:00etan, zezen plazan, eta Maite Larburu 19:00etan, Aldaban.

Irailak 4. Ene Kantak, 12:00etan, zezen plazan.

Irailak 10. Neomak, 20:00etan, zezen plazan.

Irailak 11. Izaro, 20:00etan, zezen plazan.

Irailak 24. Willis Drummond, 20:00etan, zezen plazan.

Irailak 25. Bonba bat naiz antzezlaria, 19:00etan, Berazubin.

Urriak 3. Tolosako kultur eragilean eta En Esencia Orkestraren emanaldia, 20:00etan, zezen plazan.

Udal aurrekontuari ekarpenak egiteko aukera

Erredakzioa

Tolosako udal gobernua dagoneko hasi da 2022 urteko udal aurrekontuak lantzen. Tolosatzen proiektuaren barruan, indar fokua teknikari eta oposizio alderdiekin partekatu ditu jada eta horiek herritarrekin partekatze lehen saio irekia egin du ere. «Orain, indar-foku horiek aberastu eta osatzeko aukera izango dute tolosarrek online ekarpenak eginda», esan du udalak.

Informazio guztia herritarren esku dago eta galdetegi azkar bati erantzunez egin daitezke ekarpenak. Bihar izango da ekarpenak egiteko azken eguna. Zalantzarik izanez gero, udaleko 010 telefonora deitu daiteke edo gobernanta@tolosa.eus helbidera idatzi.

Asuncionezko ur zikinak Oriara joaten direla salatu dute

Erredakzioa

Eguzki talde ekologistak salatu du Asuncion ospitaleko ur zikinak zuzenean Oriara ibaira isurtzen direla. Herritar batek egin dako salaketari esker jaso du Eguzkik, albistea. «Ur zikinak zuzenean Oriara ibaira doaz, tartean erdia kalean bertan geratzen delarik. Hor ikusten dira kaka eta aparrak (herritarrek bidali dien argazkian). Saneamendua ezinbesteko azpiegitura da guretzat eta hau ospitale batean gertatzea oso larria da».

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Juan Luis Mendizabal Jauregi

Herenegun hil zen 74 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Arrebak: Begoña eta Antxon Manzisidor(t), Lourdes eta Amado Elorriaga(t); ilobak: Asier eta Carol, Iker eta Ainara, Iñaki, Nerea eta Eneko; iloba-txikiak: Madalen, Unax, Ihart, Ibiur; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR OSTEGUNA arratsaldeko ZAZPIETAN ANDRE MARI ZERURATUAREN Parroki Elizan egingo den hiletaelizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

BEASAINen, 2021eko uztailaren 22an
HELBIDEA: Oriamendi, 20 - 2. ezk

OHARRA: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da 10:00etatik 13:30ra.

Erredakzioa Tolosa

Osasun Sailak atzo eguneratu zuen pandemiak utzi duen hildako eta positiboetako lotutako buletin epidemiologikoa, non uztailaren 18ra arte metatutako datuak jasotzen diren, eta horren arabera COVID-19ak 77 hildako utzi ditu Tolosaldean eta 5.771 pertsonak izan dute birusa, hau da, eskualdeko %12 kutsatu da eta % 0,16 hil.

Tolosa da bizilagun gehien dituen eskualdeko herria, 19.400, eta Osasun Sailak emandako datuen arabera, hildako zein positibo gehien izan dituen da; 2.440 positibo eta 43 hildako. Ibarra dago atzetik, hildakoei erreparatuta; 10 hildako egon dira eta 585 kutsatu.

Osasun Saila pasa den urteko uztailaren 20an argitaratu zuen hildako zein positiboetako buruzko herriz herriko lehen txostena, eta 337 kutsatu eta 31 hildako zenbatu zituzten jada, eskualdean. Hildako gehienak, 20, Tolosan izan ziren. Hildako horien artean asko adinekoen egoitzetan izan ziren, izan ere, pasa den urteko apirilean egoiliar bat baino gehiago hil zen Iurreamendi egoitzan. Lehen txosten epidemiologiko hartan bildutako datuen arabera, pasa den urtean garai honetan 90 urtetik gorakoak ziren batez ere, positibo ematen zutenak (positibo guztien %31,5). Atzetik zeuden 80 eta 89 urte artekoak (%24,5) eta 70-79 urte artekoak gero (%13,1). Azken datuen arabera, orain, 40 eta 49 urte artekoen artean daude positibo gehien (%16,3), eta atzetik daude 50 eta 59 urtekoak (%14,9), 20-29 urtekoak ondoren (%12,9) eta 30-39koak gero (%12,4). Duela urtebete inguruko positibo gehien pilatzen zituen taldea, 90 urtetik gorakoena, gaur positiboen %2koa da, 80-89koa %4,7 eta 70-79koa %6koa.

Aipatu behar da, hala ere, azken bi buletinetan bakarrik ageri direla Tolosaldeko 28 herrietako datuak, ATARIAK hala eskatuta, aurreko buletinetan ez baitziren eskualdeko herri guztien datuak jasotzen. Hala, 2020ko uztailaren 20ko lehen buletin epidemiologiko hartan Abaltzisketa, Baliarrain, Berrobi, Elduain, Larraul, Ikaztegieta, Orendain, Orexa eta Gazteluko datuak falta ziren.

TXERTAKETA

Osasun Sailatik ematen dituzten datuak eskuan eta arduradunek ematen dituzten adierazpenak jarraituta, badirudi, duela urtebete eta oraingo kopuruen arte-



Tolosako Beotibar pilotalekua egokitu dute Tolosaldeko herritarren artean txertaketa egiteko. R.C

Pandemia hasi zenetik herritarren %12 kutsatu da

5.771 pertsonak izan du birusa Tolosaldean, eta 77 pertsona hil dira; azken egunean 27 positibo izan dira, eta Tolosa eta Villabona eremu gorrian daude

2021EKO UZTAILAK 18RA ARTEKOAK

HERRIA	KUTSATUAK	HILDAKOAK
Abaltzisketa	27	0
Aduna	49	2
Albiztur	31	0
Alegia	240	3
Alkiza	32	0
Altzo	56	1
Amezketeta	113	2
Anoeta	254	3
Asteasu	164	0
Baliarrain	28	0
Belauntza	15	0
Berastegi	126	0
Berrobi	79	0
Bidania-Goiatz	53	1
Elduain	22	0
Gaztelu	17	1
Hernialde	38	0
Ibarra	585	10
Ikaztegieta	63	1
Irura	193	4
Larraul	25	0
Leaburu	48	1
Lizartza	46	0
Orendain	17	0
Orexak	5	0
Tolosa	2.440	43
Zizurkil	312	1
Villabona	693	4

2020KO UZTAILAK 20KO DATUAK

HERRIA	KUTSATUAK	HILDAKOAK
Abaltzisketa	-	-
Aduna	2	1
Albiztur	1	0
Alegia	4	1
Alkiza	3	0
Altzo	8	0
Amezketeta	2	1
Anoeta	14	1
Asteasu	5	0
Baliarrain	-	-
Belauntza	2	0
Berastegi	3	0
Berrobi	-	-
Bidania-Goiatz	3	0
Elduain	-	-
Gaztelu	-	-
Hernialde	2	0
Ibarra	35	1
Ikaztegieta	-	-
Irura	20	4
Larraul	-	-
Leaburu	1	0
Lizartza	4	0
Orendain	-	-
Orexak	-	-
Tolosa	182	20
Zizurkil	10	1
Villabona	38	2

TXERTAKETA

100 urte edo gehiago. Gutxienez dosi bat %95,2, inmunizazio osoa %94,3.
90-99 urte. Gutxienez dosi bat %93, inmunizazio osoa %92,9.
80-89 urte. Gutxienez dosi bat %97, inmunizazio osoa %96,6.
70-79 urte. Gutxienez dosi bat %95,6, inmunizazio osoa %95,3.
60-69 urte. Gutxienez dosi bat %92,5, inmunizazio osoa %67.
50-59 urte. Gutxienez dosi bat %90,7, inmunizazio osoa %86,3.
40-49 urte. Gutxienez dosi bat %84,8, inmunizazio osoa %73,4.
30-39 urte. Gutxienez dosi bat %62,3, inmunizazio osoa %21,7.
20-29 urte. Gutxienez dosi bat %21,6, inmunizazio osoa %15.
16-19 urte. Gutxienez dosi bat %8,1, inmunizazio osoa %3,5.

Jasotako txertoak. 2.737.860
Jarritako dosi kopurua. 2.489.605
Jarritako dosiak. %90,9
Gutxienez dosi bat jaso dutenak. 1.437.900
Inmunizazio osoa. 1.190.992

ko aldea txertaketaren eraginez eman dela. Hau da, txertaketa adinekoen artean hasteak ekarri duela urte tarte horietan eman den positibotasunaren eta hilkortasun tasen jaitsiera. Azken datuek diote 2.489.605 dosi jarri direla EAEn eta 16 urtetik gorakoan artean %76k duela dosi bat eta %63k inmunizazio osoa. %1,9 da kontraindikazioaren bat izan edota uko egin diotenak.

Atzo esan zuen Gotzone Sagarduik gaurtik hasiko direla 12-15 urteko gaztetxo eta nerabeei txertoa hartzeko ordua hartzen. Orain arte muga 16 urtean zegoen, eta jaistea erabaki dute. Era horretan, ikasturtea hasten denerako adin tarte horren txertaketa ere hasita egongo dela esan du, eta egokiago osatu ahal izango dela prozesua. Txertoa jartzeko deia egin du beraz, Sagarduik, izurriari aurre egiteko tresna ezinbestekoetako bat dela gogorra ekarri. Jaurlaritzak zehaztu du Pfizerren dosiak erabiliko dituztela: etxe horretako dosiak baino ez dituztelako baimendu adin tarte horretarako.

LABIREN BILERA

Gauzak horrela, gaur bilduko da Labi politikoa. Izurriaren gainera datuek nabarmen okertzeraz egin dute asteotan, eta hura hesitzeko neurri murriztaileagoak hartu behar ote diren aztertuko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibileko Planeko batzorde Labik arloko adituak batten dituen bilera egin zuen asteartean, eta neurri gehiago hartu behar diren aztertu dute. Oraingoz, gauean kalean izaten diren pilaketak saihesteko eskaerez gainera, maskararen erabilera indartzeko mezuak ari dira ematen. Jaurlaritzak adierazia du ez duela etxeratzeko agindurik ezartzeko asmorik, epaileek erabakia atzera botako duten kezka baitu.

AZKEN DATUAK

Herriz herriko positiboetako dagoenak, 27 zenbatu zituzten herenegun Tolosaldean; Tolosan 12, Zizurkil 6, Amasa-Villabona 5 eta Anoetan, Berrobin, Ibarra eta Iruran positibo bana. 12.754 test diagnostiko egin zituzten eta horietatik, 1.583 (%12,4) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 481 atzeman zituzten. Amasa-Villabona (1.166) eta Tolosa (1.030) kolore gorrian daude. COVIDaren ondorioz 49 pertsona ospitaleratu zituzten atzo, eta COVIDa duten 45 pertsona ZIU daude. Bestalde, uztailaren 12tik 18ra bitarte, COVIDagatik 4 pertsona hil direla esan du Osasun Sailak.

Elduaingo Allanegi baserrian ostatu hartu dute hainbat bidaiarik lana eta ostatuaren arteko elkartrukean; Workaway plataformaren bidez hilabete inguru egongo dira eskualdean

Bidaiatzeko beste modu bat

Agurtzane Belaunzarán
Elduain

Udarak opor usaina izaten du eta bidaiatzeko sasoia da askoren tzat. Oporrak opor, bidaiak bidaiak, modu ezberdinetan egiteko aukerak badira; Mediterraneoan hortzaz gora hondartzan etzanda, Aralarren Gaztaren ibilbidea eginez, itsasoz bestalde, txirringan Euskal Herriko mugetan barna, as-toa bidelagun hartuta, merke, garesti... Zenbat buru hainbat aburu ditu bidaiak ere.

Sarean badira bidaiatzeko beste modu bat eskaintzen duten plataforma ugari. Elkartrukea izaten dute ardatz gehienek eta Elduaingo Allanegi baserrian badute esperientzia horretan.

Baratze ekologikoaren ardura-duna da Eneko Imaz Amiano eta *Workaway.info* (kanpoan lana) webgunean izena ematea erabaki zuten duela lau urte inguru; «orduz gero berrogeita hamarren bat boluntario» pasa direla azaldu du Imazek.

Urte guztian jaso daitezke boluntarioak, hartzaileak hala nahi izanez gero. Allanegiko familiaren kasuan udaran izaten dute lan karga handiena baratzeke lanetan, baserrian hala ere «urte guztian zer egina» badela aitortu du Imazek eta boluntarioak normalean lanaren arabera etortzen dira Elduainera.

Plataforma honen bidez edozein motako lanak egin daitezke: haurrak zaindu, baratzezaintza,

abeltzaintza, etxea zaindu nagusiak kanpoan diren bitartean, etxearen mantenua dela margo-tuz edo paretak berrituz edo ingelesa erakutsi etxeko gazteenei.

Aukera zabalak ditu eta jende asko dabil boluntario lanean ostatuaren truke munduan zehar. Allanegitik ere, mundu zabaleko jendea pasa da «New Yorkeko hiritar peto-petoak, japoniarrak, baserrian eskarmentua duen jendea, nora datorren arrastorik ez duena...» gogoratu du Imazek, baina orokorrean «oso esperientzia ona eta aberasgarria» dela dio. «Ez da eskulan profesionala bilatzen, Aurreikuspen handia ere ezin da izan eta berehala konturatzen naiz norainoko lana eman dezakedan», esperientziatik dio Imazek.

ELKARTRUKU KULTURALA

Aipatu bezala, plataforma horien helburua elkartruke kulturala egitea da. «Webgunean oso argi dator hori, boluntarioak ez datoz doako lana egitera» azpimarratu du sarritan Imazek; «lanaren truke ostalua eta mantenua jasotzen dute eta horrek norbait zure etxean sartzea dakar, zure intimitatean eta kasu egin behar zaie, ez da hona etorri, lana eginarazi eta agur motel!».

Ostalariak eta boluntarioak aurretiazko komunikazioaz hitzarmen moduko bat egiten dute, zein lan egin beharko duten zehaztuz, ordutegiak, atsedenen egunak eta abar... Imazek argi eta garbi utzi du: «Azken batean ez da eskulan merkea eta boluntarioentzako ere ez dira opor merkeak».



Eneko Imaz eta Allanegin ostatuaren trukean lanean ari diren bi frantziar atsedena hartzen. PEDRAM YAZDANI

Bizikidetza eta kultura ezberdinak nahasten dira gehienetan esperientzia hauen bidez. Boluntarioek tokian tokiko ohiturak, kultura eta lekuak ezagutzea dute xede eta ostalariak berri, munduaren berri, bertatik bertara ezagutzea.

Lana eta ostatuaren elkartruke horren batuketak, elkartruke kulturala du emaitza. Ingelesa izaten da gehienetan komunikatzeko hizkuntza eta Imazek eta familiak abagune hori «ingelesa

gastronomiaz eta gertatu izan zaigu boluntarioek beren herrialdeko plateren bat prestatzea, eta hau ere elkartrukea da» esan du baratzezainak.

Euskal Herriari eta euskarari buruz hitzegitea gehienetan egokitu zaio; «askok ez daukate gure berri, bagarenik ere ez! Espainiara iritsi direla uste dute eta nora etorri diren azaltzen diet beti eta euskararen berri eman».

FRANTZIAKO BI BOLUNTARIO

Une honetan Nekazaritza Ingeniaritza ikasten ari diren Frantziako bi emakume daude Allanegin, Alix de Rotalier eta Alix Tassin.

Workaway plataformako kide egin ziren. 40 euro ordaindu behar direla bertan sartzeko azaldu dute eta beraien ikasketekin lotura zuen ostalaria bilatu eta harremanetan jarri zirela Imazekin.

Batak hilabete eta besteak hilabete eta erdi egingo du Elduainen. Frantziako Unibertsitateek ikasleak atzerrian lana egitera bultzatzen dituzte eta Imazek bi emakume hauen lana baloratu beharko du amaieran.

Rotalierrentzat ez da lehen esperientzia boluntario gisa, pasa den urtean Irlandan, esne behien ustiategi batean hilabete egin zuela azaldu baitu. Berak eman zion ikaskideari, Tassini, plataforma horren berri eta biak etorri dira esperientzia berri bat gozatzera Elduainera eta bide batez, unibertsitateak eskatzen dien egonaldia osatzera.

«Oso oso gustura» daudela hainbat aldiz errepikatu dute,

Allanegiko kaskotik Elduaingo ikuspegiari begira dauden bitartean. «Egin beharreko lanak oso argi esplikatzeko dizkigu eta ez du zalantzarako tarterik uzten gauzak nola egin behar diren horretan, esperientzia handia du ostalari gisa» diote biek.

Egun hauetan «belar txarrak kentzen, oilategiko azpiak ateratzen eta ilar landare lehorrak saretik askatzen» aritu dira. Tolo-sako merkatua ezagutzeko parada ere izan dute, Imazek bertan jartzen baitu postua eta «txunditurik» geratu dira «ekoizle txiki asko» ikustean.

INGURUA EZAGUTZEKO AUKERA

Denbora librean inguruak ezagutzeko parada izaten dute, hasi Euskal Herriko hirietatik eta Tolosaldeko txokoetaraino, Elduaiko paseoak ahaztu gabe. Bidaiari klasiko batek nekez ezagutuko lituzkeen bazterrak ezagutu dituzte. Biak hala biak bat datoz, «toki eta kultura berriak ezagutzeko aukera ezin hobea» dela irizitean. «Azken batean bertako familiekin egoten gara, mahai inguruan jaten, hizketan, nola bizi eta pentsatzen duten ikusten eta asko ikasten da horrela».

Egonaldien ostean, balantze bat idazten dute bai boluntarioek eta baita ostalariak ere. Abuztuaren amaiera aldera arte geratuko da Rotalier Elduainen.

Allanegin momentuz bera izango da aurtengo azken boluntarioa. Workaway bezalako plataformetan ordea mundu zabalean elkartrukea egin nahi duen jenderik ez da falta. Bidaiatzeko modu ezberdin eta aberatsa, zalantzarik gabe.

«Webgunean oso argi dator; boluntarioak ez datoz doako lana egitera»

ENEKO IMAZ AMIANO
NEKAZARIA

«Egin beharreko lanak oso argi esplikatzeko dizkigu eta ez du zalantzarako tarterik uzten»

ALIX DE ROTALIER
NEKAZARITZA INGENIARITZA IKASLEA

«Oilategiko azpiak ateratzen eta ilar landare lehorrak saretik askatzen aritugara»

ALIX TASSIN
NEKAZARITZA INGENIARITZA IKASLEA

praktikatzeko eta entzumena lantzeko» aprobetxatzen dute. Gastronomia ere ohiko gaia izaten da hizketaldietan eta munduko platerak dastatzeko aukera izan dute zenbaitetan Allanegin. «Beti hitz egiten da

Eraso matxisten aurkako kanpaina abiatuko dute Amasa-Villabonan

Udalak Lurgatz eta Akain talde feministekin elkarlanean gauzatuko du kanpaina eta ekintza ezberdinak egingo dituzte matxismoak herrian lekuri ez duela aldarrikatzeko

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak komunikazio kanpaina zabal bat egingo du udan, matxismoak herrian lekuri ez duela aldarrikatzeko. Beatriz Unzué alkateak adierazi duenez udalak konpromiso «irra» du emakumeen kontrako eraso guztietako jokabide eta eraso matxisten aurka. «Jokabide, irain, eraso eta erailketa matxistek ez dute etenik, eta zorritzarrez gero eta oihartzun handiagoa ematen zaion eskuin muturraren mezuek, matxismoaren aurrean gizartearen pasibotasuna bilatzen dute. Ez dute lortuko», esan du Unzuék. Gogorarazi du 2021ean 4 erailketa matxista izan direla Euskal Herrian, eta beraz, matxismoak hiltzen jarraitzen duela. «Egoera hau onartezina da ikuspuntu guztietatik».

Orain abiatuko duten kanpaina udalaren ekimenetik sortu bada ere, hasieratik, Lurgatz eta Akain herriko talde feministen «babesa eta konplizitatea» bilatu dutela esan du alkateak, «bestela marketin hutsean geratzeko arriskua izango luke eta». Unzuerekin batera, Arantxa Lopez Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia, Itziar Garcia Gizarte Zerbitzuetako teknikaria eta mugimendu feministako ordezkariak izan dira kanpaina aurkezten.

Alkateak gizartetik desagerrarazi beharreko gaitza bezala definitu du matxismoa eta horregatik ezinbestekotzat jo du erakunde publikoek eta mugimendu feminista antolatuek indarrak batzea eta elkarlanean aritzea. «Matxismoaren aurrean eta matxismoa ahalbidetzen duen gizarte egitura zaharkituen aurrean, ezinbestekoa da erakundeek benetako politika feministak jaretzea eta herri mugimendu feministak kaleetan eta behar den leku guztietan borroka sozial indartsua garatzea».

Egunotan martxan jarriko duten ekimen honekin argi ikusarazi eta erakutsi nahi dute Amasa-Villabonan emakumeen kontrako eraso matxistek ez dutela



Lurgatz talde feministako kideak, udal ordezkariak eta Akain taldekoak, herri sarreretan jarriko duten seinalearen atzean eta gida praktikoa eskutan dutela. J.M.

inongo lekuri izango. «Herri gisa, ez dugu inolako ulermen edo tolerantziarik izango matxismoaren aurrean».

Lau euskarritan gauzatuko da Amasa-Villabonan indarkeria matxistaren aurka antolatu duten kanpaina: etxez etxe banatuko den gida praktikoa bat, establezimenduetan jarriko diren itsasgarriak, herriko bi sarrera nagusietan jarriko diren seinaleak eta herriko hainbat gunetan ezarriko dituzten pankartak.

«Etorkizunean horrelako kanpainarik egin beharko ez den gizarte bat eraiki nahi dugu, eta honako hau, helburu hori lortzeko lagungarria izango den kanpaina xume bat izatea nahi genuke», gaineratu du alkateak. Gizarte laguntzaile gisa Garciak garrantzitsutzat jo du elkarlana indarkeria matxistaren kontrako kanpainetan, eta batez ere, herritarren partaidetza jarri du azpimarra.

KANPAINAREN EUSKARRIAK

Gida praktikoa

Ez zaude bakarrik, indarkeria matxista salatu!

Emakume batek indarkeria matxista pairatuko balu, edo beste emakume batek pairatzen duenaren susmoa badu, zer egin edo nola jokatu dezakeen, eta egoera horri aurre egiteko zein baliabide dituen jasotzen duen eskuorri bat argitaratu du udalak. Indarkeria matxistaren zantzuak identifikatzeko argibideak, non eta nola salatu momentu bakoitzean, nola jokatu eta laguntza jasotzeko zein bitarteko dauden azaltzen da gida praktikoa: telefonoak, helbideak eta kontakturako bideak ematen dira. Udalak herriko etxe guztietara banatuko du gida praktikoa aste honetan. Gidan hizkuntza ezberdinetan jaso dute informazioa, herriko emakume guztiengana iristeko ahalegina egingez.

Itsasgarria establezimenduetan

Hemen ez dugu eraso matxistarik onartzen.

Amasa-Villabonan herritarrei zabali dauden establezimendu guztietara gutun bat bidaliko du udalak. Gutun horretan, indarkeria matxistaren kontrako kanpaina honen arrazoiak, helburuak eta nondik norakoak azaltzen dituen dokumentu bat eta itsasgarri edo pegatina bat jasoko dute. Kanpaina honekin bat eginez, itsasgarria leku ikusgarri batean, erakusleho edo ateetan, ezartzeko gonbidapena luzatuko zaie establezimenduetako arduradunei.

Seinaleak herri sarreretan

Amasa-Villabona eraso matxisten aurka.

Euskal Herri osoko udalugarik egin duten bezala, Villabonak errepideetatik dituen bi sarbide nagusietan trafiko seinaleak jarriko dira, herrira sartzen den edonork argizan dezan

herrian matxismoak ez duela lekuri.

Pankartak

Amasa-Villabonan ez dugu eraso matxistarik onartzen!

Udalak hiru pankarta jarriko ditu Villabonako herri gunean dauden farola eta argi posteetan: Errebote plazan, Kale Berrian eta Larrea auzoan.



Gida praktikoa hau banatuko dute. J.M.

Eskualdeko igerilariak ezin hobeto ari dira denboraldi amaieran

Tolosaldea IKT klubeko hainbat igerilarik euren markak hobetu dituzte Euskal Herri mailan; Espainiako Txapelketetan, berriz, dominetatik gertu dabilta

Josu Artutxa Tolosa

Uztaileko lehen asteburuan, Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa jokatu zen Galdakaon. Tolosaldea IKT klubeko igerilariak emaitza oso onak lortu zituzten: domina ugari, taldeko hainbat errekor berri, marka pertsonal mordo eta jokatu ziren errelebotako 6 probetatik 5 garaipen. Mutiletan, lehen postua eskuratu zuten; nesketan, berriz, hirugarren izan ziren. 14 urtekoen mailan, Nahia Garridok Euskal Herriko errekorra hobetu zuen, bizkar estiloko 200 metroko proban, 2:14:44ko denborarekin.

Garrido bera, klubeko beste hiru igerilariarekin batera, Sabadellen ari da lehiatzen aste honetan, Espainiako Junior Txapelketan; asteartean izan zen lehen jardunaldia. Garrido zortzigarren sailkatu zen lau estiloetako 400 metroko finalean, 5:14:73ko markarekin. Unai Zubeldia bosgarren izan zen bizkar estiloko 100 metrokoan, 1:00:07ko denbora eginez. Markel Garmendia, bederatzigarren izan zen tximeleta estiloko 200 metroko finalean, 2:14:94ko markarekin. Azkenik, Naia Sarasola hamargarren izan zen lehiatu zen bi finaletan: estilo libreko 100 metrokoan (1:00:35) eta tximeleta estiloko 200 metrokoan (2:32:41). Estilo libreko 100 metroko proban lehiatu zen Garmendia, 54:87ko denborarekin, finaletik kanpo geratuz. Garrido eta Sarasola, ordea, bizkar estiloko 100 metroko finalean sartu ziren; lehena, gainera, sailkatze faseko denbora onenarekin.



Espainiako Junior Txapelketara joan diren eskualdeko igerilariak. TOLOSALDEA IKT

an, 2:14:94ko markarekin. Azkenik, Naia Sarasola hamargarren izan zen lehiatu zen bi finaletan: estilo libreko 100 metrokoan (1:00:35) eta tximeleta estiloko 200 metrokoan (2:32:41). Estilo libreko 100 metroko proban lehiatu zen Garmendia, 54:87ko denborarekin, finaletik kanpo geratuz. Garrido eta Sarasola, ordea, bizkar estiloko 100 metroko finalean sartu ziren; lehena, gainera, sailkatze faseko denbora onenarekin.

Martin Zubeldia izan da denboraldia espero baino hobeto amaitu duen klubeko beste igerilari bat. Pasa den astean, Espainiako Alebin Txapelketan parte hartu zuen, Tarragonan. 14 urtekoen mailan, bizkar estiloko 100 metroko finalean laugarren denbora onena egin zuen tolosarrak: 1:02:49.

Irati Lakunzak hiru domina irabazi ditu

Tolosarrak bi proba irabazi ditu Hegats Igeriketako Espainiako Txapelketan; bertan, sari bat jaso du Igarondo Urpekoak taldeko Jon Espina entrenatzaileak

Erredakzioa Tolosa

Pasa den asteburuan, junior eta senior mailako Hegats Igeriketako Espainiako Txapelketak jokatu ziren Benidormen. Besteak beste, Tolosako Igarondo Urpekoak taldeko hamalau igerilari izan ziren bertan.

Junior mailan, lehendik zituen markak ondu zituen Maite Gibelalde, eta errelebo polita egin zuten Izaro Bartolomek, Nora Garmendiak, Libe Mancisidorek eta Gibelalde berak. Mutiletan, Jon Telleriak ere lehendik zituen markak ondu zituen.

Senior mailan, Irati Lakunzak hiru domina eskuratu zituen, urrezko bana murgilketa estiloko 400 metroko eta 100 metroko probetan, eta zilarrezkoa urazaleko 100 metroko lasterketan; azken honetan, gainera, bere marka hobetzea lortu zuen.

Bestetik, urazaleko 200 metroko proban, bederatzigarren izan zen Nora Sarasola, bere denbora hobetuz, eta Aritz Auzmendik ere bere denbora hobetzea lortu zuen. Mutiletan, murgilketako 100 metroko proban, laugarren

izan zen Patxi Monge. Mikel Estebanek eta Gregorio Mancisidorek euren markak hobetu zituzten, eta Unai Eraso bosgarren izan zen murgilketako 400 metroko proban.

Txapelketan bertan, urrezko domina eta oroigarri bana jaso zituen Jon Espina klubeko entrenatzaileak. Bere ibilbide luzean, hegats igeriketari eman dion guztiagatik omendu zuten.



Jon Espina, jasotako sariekin. ATARIA

Emanaldi biribilak egin dituzte Tolosako gimnastek

Tolosa CF klubeko gimnastika erritmikoko junior mailako taldea hirugarren postuan sailkatu da Espainiako Taldekako Kopan

Erredakzioa Tolosa

Igandean, Gimnastika Erritmikoko Espainiako Taldekako Kopako bigarren fasea jokatu zen Valentzian, eta bertan Tolosa CF klubeko bi taldek hartu zuten parte: junior mailakoek eta lehen mailakoek. Ane Barandiaranek, June Bengoetxeak, Saioa Cebერიok, Maite Iturriozek, Ahetze Olanok eta Aroa Zugastik osatu zuten juniorren taldea, eta xingola eta uztaiekin aritu ziren.

Lan ona egin ondoren, hirugarren izan ziren 17,1 punturekin. Cronos taldea (Murtzia) izan zen onena, 22,2 punturekin; bigarren, berriz, Algete (Madril) sailkatu zen, 17,4 punturekin.

Lehen mailako nesken taldea, berriz, Ane Alustizak, Mara Herrerrak, Irene Arbeloak, Ismene Aguirrek eta Aitane Goikoetxeak osatu zuten. Akats txiki batzuk egin zituzten arren, brontzezko dominatik 0,25 puntutara besterik ez ziren geratu.

Denboraldia amaitu ondoren, gimnasta, entrenatzaile, familia eta babesle guztiak zoriondu dituzte Tolosa CF Gimnastika taldeko ordezkariak. Irailean ekingo diete berriro entrenamenduei eta abenduan jokatu den Espainiako Txapelketa izango da gimnasten hurrengo helburua. Bitartean, ateak zabaltzen dizkie gimnastika erritmikoa praktikatutako nahi duen orori. Horretarako, cgtrtolosa@gmail.com helbidera bidali behar da mezua.



Valentziatik iristean, senideek ongietorria egin zieten. TOLOSA CF GIMNASTIKA



OSTEGUNA, 2021EKO UZTAILAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 22

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Las XL taldearen *Degenerate mucho* antzezlan, Gurea antzokian, 19:00etan.
Tolosa. Ohe elastikoak Trianguloa plazan.

Erakusketak

Hernialde. Herriko artisten lanak, udaletxeko kultur aretoan.
Tolosa. Kultur lantegietan ikasleek egindako lanak, Aranburu jauregian.
Tolosa. Jabetze Eskolako xilografia ikastaroko ikasleen lanak, Emakumeen Etxeko erakusleihoetan.
Tolosa. Edurne Sudupe Zabaloren *Mandala* erakusketa, 3 tabernan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Baserritik. Lehen sektorea ardatz duen saioa.
10:00. Amalurra. Ingurumenari buruzko saioa.
11:00. Postalak. Bidaien tarteak.
12:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa.
15:00. Ezkutuko aldea. Eskualdeko pertsonaiekin elkarriketa.
20:00. Musikasi. Musika klasikoak.
22:00. Mailu ta akuilu. Musika.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeetik
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeetik
21:30. Gaurkoan Tolosaldeetik
22:00. Pintxo-Pote (Lurgi Zalakain)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Bero handia. Goizean goizetik zeruan urdina nagusituko da eta eguzkiak gogotik lan egiteko aukera izango du. Azken orduetan hodei baxu batzuk sartuko dira itsasotik, baina inolako ondorioz gabe. Goizean haizea hego-ekialdetik ibiliko da. Arratsaldean, aldiz, ipar-mendebaldeko aldatuko da. Tenperatura igo eta 31-33 graduan joko du goia.



Bihar. Giro lasaiarekin jarraituko dugu. Goizean goi-hodei batzuk salbu, giro eguzkitsua nagusituko da. Arratsaldean ordea, behe-hodeiak ugartuko dira eta zerua zikinago agertuko da. Hala ere, hodei hauek ez dute ondoriozkarriko. Haizeak ipar-mendebaldeko joko du, arratsaldean bizi-bizi gainera. Tenperatura jaitsi eta 27-28 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Hondakinen kudeaketa txukuna guztion ardura dela gogoratu dute

Zizurkilgo Udalak esan du hondakin ezberdinak lurrean utzi dituztela, eta arduraz jokatzeko eskatu die herritarrei



Otaño inguruko edukiontziak, aste honetan. ATARIA

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalak hondakinen kudeaketa txukuna egitearen garrantzia azpimarratu du, eta herritarrei esan die udalaren ardura ez ezik, herritarrena ere badela.

Otaño inguruko edukiontzien gunea jarri du adibide moduan. Izan ere, bertan hondakin ezberdinak ikusi dituzte lurrean aste honetan, eta esan dute ez dela Zi-

zurkilen horrelakoak ikusten diren lehendabiziko aldia.

Hondakinen kudeaketa txukuna egitea «guztion ardura» dela adierazi du Zizurkilgo Udalak. «Herria txukun eduki ahal izateko, ezinbestekoa da arduratsu jokatzeko». Hala, gogoratu du martxoan aldatu egin zela Elbarrerenan, hondakinak ateratzeko egutegia eta ordutegia.

Hain justu, ontziak goizean, 08:00ak baino lehen, atera behar

dira. Errefusa asteazkenetan biltzen dute; organikoa asteartean, ostiraletan eta igandeetan, eta traste handiak, berriz, ostiraletan.

Traste handien kasuan, utzi aurretik 943 67 62 16 telefono zenbakira deitzea beharrezkoa dela azaldu du udalak. Errefusaren kasuan, berriz, esan du aparteko beste bilketa bat ere egingo zaiela larunbatetan, sortzaile bereziei.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



zozketak

Atarikideentzat **Iparra Beer pack** bat daukagu



Atarikideen artean **Iparra Beer pack** bat zozkatzen dugu.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**